



EIBAR
Udala | Ayuntamiento



EIBARKO UDALA
Ayuntamiento de Eibar

HAUTAKETA PROZESUA

EIBARKO UDALEKO HIRIGINTZA ARLOKO ARKITEKTO **PLAZA**

Lehenengo ariketa

2026-07-16



1 Baieztapen hauetatik, zein ez da zuzena?

- 1a) Espainiarrak legearen arabera berdina dira, eta ezin da inolako bereizketarik egin jaiotza, arraza, sexu, erlijio, iritzi nahiz bestelako inguruabar edo egoera pertsonal zein sozial aintzat hartuta.
- 1b) Guztiek bizitza eta osotasun fisiko nahiz moralerako eskubidea dute, eta ezin da inoiz torturarik egin, ez eta zigor edo tratu jasanezin edo apalesgarrikeria ere. Heriotza-zigorra indarrik gabe geratzen da, zigor-lege militarrek gerraldirako xeda dezaketinari kalterik egin gabe.
- 1c) Gizabanakoen eta giza taldeen ideologia-, erlijio-eta kultu-askatasuna bermatzen da, eta beraien agerpenetan muga bat baino ez da izango, legeak babesten duen ordena publikoa jagotea.
- 1d) Aurreneurritzko atxilotak ezin dezake iraun egitateak argitzeko ikerketek behar-beharrezkoa duten baino denbora gehiago, eta, gehienez ere, laurogeita hamabi ordu igaro ondoren, atxilotua askatua izango da edo, bestela, agintaritzaren esku geratuko da.

2 Dagokion arauak bestelako eperik ezartzen ez badu, interesdunek bete beharreko izapideak epe honetan egin beharko dira:

- 2a) Hilabeteko epean, dagokion egintza jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.
- 2b) Hogeia eguneko epean, dagokion egintza jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.
- 2c) Hamabost eguneko epean, dagokion egintza jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.
- 2d) Hamar eguneko epean, dagokion egintza jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

3 Prozedurak noiz hasiko dira ofizioz?

- 3a) Salaketagatik.
- 3b) Organo eskudunaren ekimenagatik.
- 3c) Norberaren ekimenagatik.
- 3d) Erantzun guztiak dira zuzenak.

4 Adierazi zein den erantzun okerra informazio publikoari dagokionez:

- 4a) Izapide horretan ez agertzeak interesdunei eragotzi ahal izango die prozeduraren behin betiko ebazpenaren aurka dagozkien errekursoak aurkeztea.
- 4b) Ebazpena eman behar duen organoak, prozeduraren izaerak hala eskatzen badu, erabaki dezake informazio publikorako aldi bat egotea.
- 4c) Informazio publikoaren izapidean agertzeagatik ez da inor, besterik gabe, interesdun bihurtzen.



- 4d) Izapide horretan alegazioak edo oharra aurkezten dituztenek Administrazioaren erantzun arrazoitua jasotzeko eskubidea dute; erantzun bakarra eman dakieke funtsean arazo bera agertzen duten alegazio guztiei.

5 Interesdunek toki hauetan aurkeztu ahal izango dituzte administrazio publikoetako organoetara zuzentzen dituzten dokumentuak:

- 5a) Posta-bulegoetan, erregelamenduz ezartzen den moduan.
5b) Eskabidea jaso duen administrazio edo organismoaren erregistro elektronikoan.
5c) Espainiak atzerrian dituen ordezkaritza diplomatikoetan edo bulego kontsularretan.
5d) Erantzun guztiak dira zuzenak.

6 Espresuki kontrakoa xedatzen ez bada, txostenak honelakoak izango dira:

- 6a) Lotesleak.
6b) Lotesleak eta aukerakoak.
6c) Aukerakoak eta ez-lotesleak.
6d) Aukerakoak inoiz ez.

7 Toki-ordenantzak onartzeko prozedura hau bete behar da:

- 7a) Alkateak hasierako onarpena ematea, gutxienez hogeita hamar egunean jendaurrean jarrita izatea eta interesdunei entzunaldia ematea, erreklamazioak eta iradokizunak aurkez ditzaten, epe barruan aurkeztutako erreklamazio eta iradokizun guztiak ebaztea eta Osoko Bilkurak behin betiko onarpena ematea.
Inolako erreklamazio edo iradokizunik aurkezten ez bada, ordura arte behin-behinekoa zen erabakia behin betikoa dela ulertuko da.
- 7b) Osoko Bilkurak hasierako onarpena ematea, gutxienez hogeita hamar egunean jendaurrean jarrita izatea eta interesdunei entzunaldia ematea, erreklamazioak eta iradokizunak aurkez ditzaten, epe barruan aurkeztutako erreklamazio eta iradokizun guztiak ebaztea eta Osoko Bilkurak behin betiko onarpena ematea.
Inolako erreklamazio edo iradokizunik aurkezten ez bada, ordura arte behin-behinekoa zen erabakia behin betikoa dela ulertuko da.
- 7c) Osoko Bilkurak hasierako onarpena ematea, gutxienez hogeita hamar egunean jendaurrean jarrita izatea eta interesdunei entzunaldia ematea, erreklamazioak eta iradokizunak aurkez ditzaten, epe barruan aurkeztutako erreklamazio eta iradokizun guztiak ebaztea eta Osoko Bilkurak behin betiko onarpena ematea.
Inolako erreklamazio edo iradokizunik aurkezten ez bada, ordura arte behin-behinekoa zen erabakia behin betikoa dela ulertuko da.
- 7d) Erantzun guztiak dira okerrak.

8 Bandoak emateko eskumena honako honi dagokio:

- 8a) Osoko Bilkurari.
8b) Alkateari.
8c) a) eta b) erantzunak zuzenak dira.
8d) Erantzun guztiak dira okerrak.



9 Udal-antolakuntza arau hauen araberakoa da:

- 9a) Udal guztietan Alkatea, Alkateordeak eta Osoko Bilkura daude.
- 9b) Udal guztietan Alkatea, Gobernu Batzarra eta Osoko Bilkura daude.
- 9c) Udal guztietan Alkatea eta Osoko Bilkura daude.
- 9d) Udal guztietan Alkatea eta Gobernu Batzarra daude.

10 APAPL Administrazio Publikoen Administrazio Prozeduraren Legearen 41. artikulua ezartzen duenaren arabera, jakinarazpenak, ahal dela, honela egingo dira:

- 10a) Posta bidez.
- 10b) Telefono bidez.
- 10c) Ahal dela, bitarteko elektronikoen bidez.
- 10d) Administrazioarentzat azkarrena eta merkeena den bidea erabiliz.

11 Egintza batek atzeraeragina izateko, beharrezkoa da:

- 11a) Partikularren eskubideak murriztea.
- 11b) Partikularren ahalmenen erabilera murriztea.
- 11c) Betebeharrak eta obligazioak ezartzea.
- 11d) Ez kaltetzea beste pertsona batzuen eskubideak.

12 Egintza administratibo bat jakinaraztea(k):

- 12a) Eten egiten du haren eraginkortasuna harik eta gauzatu arte, egintza orokorren kasuan.
- 12b) Behin eginda, ez du eragozten haren betearazpena.
- 12c) Behin eginda, eten egiten du haren eraginkortasuna.
- 12d) Mota guztietako egintzekin egin behar da.

13 Emakume bati haurdunaldiarengatik edo amatasunarengatik emandako tratu kaltegarri oro:

- 13a) Sexu-jazarpena da.
- 13b) Sexuan oinarritutako jazarpena da.
- 13c) Zuzenean sexuan oinarritutako bereizkeria da.
- 13d) Zeharka sexuan oinarritutako bereizkeria da.

14 Berraztertze-errekurtsoa aurkeztuko da:

- 14a) Egintza eman zuen organoaren hierarkian goragokoaren aurrean.
- 14b) Auzien Epaitegi eskudunaren aurrean.
- 14c) Egintza eman zuen organoaren aurrean.



- 14d) Batean zein bestean, bai egintza eman zuen organoaren aurrean, bai erabakia hartu behar duen hierarkian goragokoaren aurrean.

15 Alkateak honako eskumen hauek utz ditzake eskuordetzan:

- 15a) Bandoak ematea.
15b) Udaleko osoko bilkuretarako deia egin eta bertan buru izatea, lege honetan eta hauteskunde-legedi orokorrean aurreikusitako kasuetan izan ezik, baita tokiko gobernu-batzarraren eta beste udal-organo guztien kasuan ere, legezko zein erregelamenduzko xedapenetan horrela ezarrita dagoenean; eta berdinketak daudenean, kalitateko botoarekin hori erabakitzea.
15c) Udal-gobernua eta -administrazioa zuzentzea.
15d) Planeamendu orokorra garatzeko tresnen onespenez, berariaz Osoko Bilkurari esleitu ez bazaizkio, baita hirigintza kudeatzeko tresnena eta urbanizazio proiektuena ere.

16 Espainiako Konstituzioaren 137. artikulua araberaz:

- 16a) Lurraldeari dagokionez, Estatua udalerri, probintzia eta sortzeko diren autonomia-erkidegoetan antolatzen da.
16b) Lurraldeari dagokionez, Estatua udalerri, probintzia eta uharteetan antolatzen da.
16c) Lurraldeari dagokionez, Estatua udalerri, probintzia eta eskualdeetan antolatzen da.
16d) Lurraldeari dagokionez, Estatua udalerri, probintzia eta kontzejuetan antolatzen da.

17 Administrazio publikoak objektibotasunez betetzen ditu interes orokorrak eta honako printzipio hauek ditu ardatz:

- 17a) Hierarkia, deszentralizazioa, deskontzentrazioa eta koordinazioa, legeari eta zuzenbideari bete-betean men eginez.
17b) Eragingarritasuna, hierarkia, deszentralizazioa eta koordinazioa, legeari eta zuzenbideari bete-betean men eginez.
17c) Eragingarritasuna, hierarkia, deszentralizazioa eta deskontzentrazioa, legeari eta zuzenbideari bete-betean men eginez.
17d) Eragingarritasuna, hierarkia, deszentralizazioa, deskontzentrazioa eta koordinazioa, legeari eta zuzenbideari bete-betean men eginez.

18 Zein da estatuaren lurralde-antolaketa erakunde oinarritzakoa, herritarrek herri-arazoetan esku hartzeko hurbileneko bide dena, eta bertako giza taldeen berezko interesak autonomiaz erakundetu eta kudeatzen dituenak?

- 18a) Uhartea.
18b) Probintzia.
18c) Udalerria.
18d) Eskualdea.



19 Toki-administrazioaren esparruan, zein da gai baten inguruko herri-galdeketa egin dezakeen organo bakarra?

- 19a) Probintziako Diputazioko lehendakaria.
- 19b) Alkatea.
- 19c) Nazioaren gobernua.
- 19d) Toki-entitate bakoitzeko Osoko Bilkura.

20 Administrazio-prozedura batean epe baten azken eguna baliogabea bada...

- 20a) Epea hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da.
- 20b) Epea justu aurreko egun balioduneari bukatuko da.
- 20c) Epea ezartzen duen arauak xedatu beharko du noiz amaitzen den.
- 20d) Ezin da egun baliogabeetan amaitzen den eperik ezarri.

21 Kontratu txikietan, espedientearen izapideak egiteko, honako hau beharko da:

- 21a) Kontratazio-organismoaren txostena, honako bi inguruabar hauek azaltzen dituenak: kontratua beharrezkoa dela (arrazoiak emanda) eta kontratuaren objektua ez dela aldatzen ari, aurreko apartatuan deskribatutako atalaseen aplikazioa saihesteko.
- 21b) Gastua onestea eta dagokion faktura gehitzea espedienteari; fakturak lege hau garatzeko arauak ezartzen dituzten baldintzak bete beharko ditu.
- 21c) Obra-kontratu txikian, obraren aurrekontua ere gehitu beharko da; nolabait ere, dagokion proiektua egon beharko da indarrean dauden xedapenak hala eskatzen dutenean. Era berean, 235. artikulua aipatzen duen gainbegiratze-bulego edo -unitateen txostena eskatu beharko da, baldin eta lanak obraren egonkortasunari, segurtasunari edo estankotasunari eragiten badie.
- 21d) Denak dira zuzenak.

22 Hornidura-kontratua da:

- 22a) produktu edo ondasun higigarri eta higiezinak eskuratzea, finantza-errentamenduan hartzea edo erosteko aukerarekin zein gabe errentan hartzea duen objektutzat.
- 22b) produktu edo ondasun higiezinak eskuratzea, finantza-errentamenduan hartzea edo erosteko aukerarekin zein gabe errentan hartzea duen objektutzat.
- 22c) produktu edo ondasun higigarriak eskuratzea, errentan hartzea, finantza-errentamenduan hartzea edo erosteko aukerarekin zein gabe errentan hartzea duen objektutzat.
- 22d) Denak dira okerrak.

23 Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean ezarritakoarekin bat, informazioa eskuratzeko baimena emateko edo ez emateko ebazpena eskatzaileari eta eragiten zaien besteei jakinarazi beharko zaie, gehienez ere epe honetan:

- 23a) Hilabete, ebazteko eskumena duen organismoak eskaera jasotzen duenetik hasita.



- 23b) Bi hilabete, ebazteko eskumena duen organoak eskaera jasotzen duenetik hasita.
- 23c) 30 egun, ebazteko eskumena duen organoak eskaera jasotzen duenetik hasita.
- 23d) 15 egun, ebazteko eskumena duen organoak eskaera jasotzen duenetik hasita.

24 Administrazio publikoen egintzak erabat deusezak izango dira kasu hauetan:

- 24a) Eskubideei eta askatasunei kalte egiten dietenak.
- 24b) Gaiagatik edo lurraldeagatik organo nabarmen eskudun batek eman baditu.
- 24c) Eduki posiblea dutenak.
- 24d) Arau-hauste penal badira edo halako baten ondorioz eman badira.

25 Administrazio-espedientea da:

- 25a) Dokumentu eta jarduketan multzo ordenatu bat, administrazio-ebazpenaren aurrekari eta oinarri izateko balio duena eta hura betearazteko eginbideak ere jasotzen dituenak.
- 25b) Udalaren artxibo elektroniko guztiak.
- 25c) Dokumentu eta jarduketan multzo ordenatu bat, administrazio-ebazpenaren aurrekari eta oinarri izateko balio duena, bai eta hura betearaztera bideratutako eginbideak, informazio osagarria edo lagungarria, hala nola aplikazio, fitxategi eta datu-base informatikoetakoa, ohar, zirriborro, iritzi, laburpen, komunikazio eta txostenetakoa, izan txostenok barrukoak edo administrazio-organo edo entitateen artekoak, eta orobat administrazio publikoek emandako balio-judizioak, non eta ez diren prozedurari amaiera ematen dion administrazio-ebazpena baino lehen eskatutako txostenak, nahitaezkoak eta aukerakoak.
- 25d) Denak dira okerrak.

26 Zer tresnatan definitzen da gaur egun nagusiki udalerri bakoitzaren bizitegi-kuantifikazioa Eibar barne hartzen duen gune funtzionalerako?

- 26a) Lurraldearen Antolamenduari buruzko Legean.
- 26b) EAEko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan (gidallerroetan).
- 26c) Eibarko (Debabarrena) Plan Partzialean.
- 26d) Etxebizitzaren Lurralde Plan Sektorialean.

27 Kutsatutzat jotako lurzorua izanez gero, zein lurzorutarako ezarri behar dira berreskuratze-neurriak?

- 27a) Aldaketa eragin duen ekintza otsailaren 27ko 3/1998 Legea indarrean sartu ostean gertatu bada.
- 27b) Alldaketa eragin duen ekintza Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legea indarrean sartu ostean gertatu bada.
- 27c) Aldaketa eragin duen ekintza Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legea indarrean sartu ostean gertatu bada.
- 27d) Kasu guztietan.



28 Zein dira plangintza-tresnen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren tratamendu-motak?

- 28a) Bateratua eta sinplifikatua.
- 28b) Ingurumenekoa eta sinplifikatua.
- 28c) Instrumentala eta sinplifikatua.
- 28d) Ohikoa eta sinplifikatua.

29 Jendearentzat irekitako establezimenduek, establezimenduaren eta jardueraren titularra udala baldin bada, jarduera sailkatuaren lizentzia eskuratu beharra daukate?

- 29a) Ez, nahikoa da irekitzeko Alkatetzaren dekretua.
- 29b) Ez da beharrezkoa, baimendutzat jotzen da.
- 29c) Bai, kasu guztietan.
- 29d) Bai, baina jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuen kasuan bakarrik.

30 Lurzorua eta Hiri Birgaitzearen Legearen testuategia onartzen duen urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuan aipatzen diren administrazio-elkarteei dagokienez

- 30a) Nortasun juridiko propioa eta izaera administratiboa izango dute, eta beren estatutuen eta artikuluen honetan xedatutakoaren pean egongo dira, alde batera utzi gabe lurraldea eta hirigintza antolatze legeriaren ondoriozko gainerako prozedura-arau berariazkoak. Hirigintza-administrazio jardulearen mendeko izango dira eta administrazio horri dagokio elkarteen estatutuak onartzea; une horretatik aurrera, nortasun juridikoa izango dute.
- 30b) Elkarte horietan, erabakiak partaidetza-kuoten gehiengo osoz hartuko dira, non eta estatutuetan edo bestelako arauetan ez den quorum bereziren bat ezartzen kasu jakin batzuetarako.
- 30c) Artikulu honetan aipatzen diren elkarteak, bada, haiek sortzea eragin zuten helburuak betetzean desegin egingo dira, eta, horretarako, ez da beharrezkoa izango hirigintza-administrazio jardulearen erabakirik. Dena den, erakundea ez da desegino betebeharren bat bete gabe duen bitartean.
- 30d) a) eta b) dira zuzenak.

31 Lurzorua eta Hiri Birgaitzearen Legearen testuategia onartzen duen urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 21. artikuluen arabera, lege honi dagokionez, lurzoru guztiak du oinarritzko izaera hauetariko bat:

- 31a) Landa-lurzorua edo lurzoru urbanizagarria.
- 31b) Landa-lurzorua edo urbanizagarria izan daitekeen lurzorua.
- 31c) Landa-lurzorua edo lurzoru urbanizatua.
- 31d) Lurzoru urbanizatua eta urbanizatu gabea.



32 Hiri-lurzoru gisa sailkatuko dira eraldatuak izan diren eta lehendik dagoen hiri-bilbean –sailkapena egiten duen plan orokorrak bere egiten duen neurrian– sartuta dauden edo sar daitezkeen lursailak. Horretarako, baldintza hauek bete beharko dituzte:

- 32a) Gutxienez, hornigai hau edukitzea: ibilgailuentzako sarbidea –bide zolatuz egina eta herritarrek benetan erabilgarria–; ur-hornidura; euri-ura eta ur beltza husteko sarea; behe-tentsioko energia elektrikoko hornidura. Hornidura horien tamaina, emaria, ahalmena eta tentsioa, berriz, eraikitze eta lurzoru okupatzeko lehendik dauden eraikinei eta hirigintza-antolamenduan aurreikusitako eraikinei zerbitzu egokia emateko adinakoak izan beharko dira.
- 32b) Lursailek, nahiz eta aurreko paragrafoan aipatutako zerbitzuetako batzuk ez eduki, beren antolamendua finkatuta edukitzea, eraikuntzak, gutxienez, hirigintza-antolamenduaren arabera izendatzen zaien eremu baliagarrien heren bat okupatzeagatik.
- 32c) Lursailek, nahiz eta aurreko paragrafoan aipatutako zerbitzuetako batzuk ez eduki, beren antolamendua finkatuta edukitzea, eraikuntzak, gutxienez, hirigintza-antolamenduaren arabera izendatzen zaien eremu baliagarrien bi heren okupatzeagatik.
- 32d) a) eta c) erantzunak zuzenak dira.

33 2/2006 Legearen arabera, honako hauetatik zeintzuk har daitezke behin-behineko erabileratzat?

- 33a) Nekazaritza, abeltzaintza edo basogintzako erabilera, bai eta aurrekoekin zerikusia duten merkataritzako erabilera ere; sukoi, toxiko edo arriskutsuak ez diren gaiak biltegitatu edo gordetzea, inolako instalaziorik gabe; herritarrei zerbitzu partikularrak eskaintzea; aisiako, kiroltako, olgetako eta kulturako erabilerak, bai eta bulegoko eta merkataritzako erabilerak ere.
- 33b) Nekazaritza, abeltzaintza edo meatzaritzako erabilera, bai eta aurrekoekin zerikusia duten merkataritzako erabilera ere; sukoi, toxiko edo arriskutsuak ez diren gaiak biltegitatu edo gordetzea, inolako instalaziorik gabe; herritarrei zerbitzu partikularrak eskaintzea; aisiako, kiroltako, olgetako eta kulturako erabilerak, bai eta bulegoko eta merkataritzako erabilerak ere.
- 33c) Bizitegi- eta industria-erabilerak.
- 33d) Erantzun guztiak dira okerrak.

34 Hirigintza-partzelazioa debekatuta egongo da honako kasu hauetan:

- 34a) Hiri-lurzoru finkatuan, baldin eta lurzoru horrek ez badauka onartuta eta indarrean dagoen antolamendu xehaturik.
- 34b) Hiri-lurzoru finkatugabea eta lurzoru urbanizagarri sektorizatuan, baldin eta lurzoruok ez badaukate onartuta eta indarrean dagoen urbanizatzeko jarduketa-programarik. Salbuespena izango da 49. artikuluan xedatutakoa.
- 34c) Lurzoru urbanizaezin guztian eta lurzoru urbanizagarri sektorizatugabea.
- 34d) Lurzoru urbanizaezin guztian eta lurzoru urbanizagarrian.

35 Birpartzelazioak honako xedeetako edozein izan dezake:



- 35a) Birpartzelazioaren aurretik dauden finka, partzela eta orubeak erregularizatzea.
- 35b) Partzelak erregularizatzea.
- 35c) Partzelazioaren aurretik dauden orubeak erregularizatzea.
- 35d) Denak zuzenak dira.

36 Zer zehaztapen sartzen dira plangintzaren egitura-antolamenduan hiri-lurzoruan eta/edo lurzoru urbanizagarrian?

- 36a) Hiri-lurzoru finkatua eta finkatu gabea identifikatzea.
- 36b) Lurzoru urbanizagarri sektorizatua eta sektorizatu gabea identifikatzea.
- 36c) Hiri-lurzoru finkatugabea eta lurzoru urbanizagarri sektorizatugabea identifikatzea.
- 36d) Tokiko sistemen identifikazio eta definizio zehatza.

37 Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialaren 12. artikulua arabera, zer faktore nagusi hartu behar du kontuan udal-plangintzak nekazaritza-ustiaguneari lotutako etxe isolatuak eraikitzea baimentzeko?

- 37a) Eraikuntzan erabilitako material motak.
- 37b) Lurzoruaren sailkapena eta erabilera.
- 37c) Etxebizitzaren estilo arkitektonikoa.
- 37d) Etxebizitzaren arteko distantzia.

38 Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 66. artikulua arabera, noiz ez dira aplikagarriak izango ingurumen-ebaluazio prozedurak?

- 38a) Planak erabat deusezak direnean.
- 38b) Planek eta programek aurrekontuan eraginik ez duten zehaztapen txikiak dituztenean.
- 38c) Planen eta programen helburu bakarra defentsa nazionala edo babes zibila denean larrialdi-kasuetan.
- 38d) Aurreko erantzunetatik bat bera ere ez da zuzena.

39 Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 62. artikulua arabera, nori dagokio ingurumen-ebaluazioko prozedurak bukatzeko adierazpenak eta txostenak egitea?

- 39a) Estatuko Administrazio Orokorrari.
- 39b) Oro har, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoari.
- 39c) Kasu guztietan, foru-aldundiko ingurumen-organoari.
- 39d) b) eta c) erantzunak zuzenak dira.

40 Zer erantzun EZ DA ZUZENA? Lurzorua ez kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 4. artikulua arabera, herri-administrazioek printzipio hauen arabera jokatu dute:



- 40a) Lurzoruaren funtzio artifizialen ustiapena.
- 40b) Teknologia eskuragarriak onenak erabiliz lurzoruaren berreskurapena, izango duen erabileraren arabera.
- 40c) Kutsatzen duenak ordaindu egin behar duela eta kaltea eragiten duenak erantzun egin behar duela dioen printzipioa aplikatzea.
- 40d) Leku berean lurzoru berriz erabiltzea dakarten konponbideen lehenespena.

41 Euskal Autonomia Erkidegoko Hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren arabera, zein dira zarata-mapak egitera behartuta dauden subjektuak?

- 41a) 5.000 biztanletik gorako udalak.
- 41b) 8.000 biztanletik gorako udalak.
- 41c) 10.000 biztanletik gorako udalak.
- 41d) Aurreko erantzun guztiak dira okerrak.

42 Euskal Autonomia Erkidegoko Hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 20. artikulua arabera, tipologia hauetako zein EZ dagokie nahitaezko hots-eremuei?

- 42a) Bizitegi-erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak.
- 42b) Industria-erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak.
- 42c) Tokiko sistemak edo beste ekipamendu publiko batzuek eragindako lurralde-esparru edo -sektoreak.
- 42d) Garraio-azpiegiturako sistema orokorrek edo haiek behar dituzten beste ekipamendu publiko batzuek eragindako lurralde-esparru edo -sektoreak.

43 Irisgarritasuna Sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legearen 4. artikulua arabera, ostalaritzan erabiltzeko diren oin berriko eraikin edo instalazioek honako irizpide hauen arabera bermatuko dute irisgarritasuna:

- 43a) Eraikineko sarbideak bide publikoarekin, nahitaez, eta zerbitzuekin eta aparkalekuarekin, modu osagarrian, dituen sarbideak edozein pertsonak era autonomoak erabiltzeko modukoak izango dira.
- 43b) Eraikinak bide publikoarekin, elkarte-erabilpena duten atxikitako zerbitzu edo eraikinekin eta aparkalekuekin dituen sarbideak edozein pertsonak era autonomoan erabiltzeko modukoak izango dira.
- 43c) Hoteletan eta pentsioetan, gutxienez ostatu-unitate bat egokitzea, 25 laguneko edo frakzioko, lege honen irisgarritasun-irizpideen arabera.
- 43d) Aurreko erantzunetatik bat bera ere ez da zuzena.

44 Euskal Autonomia Erkidegoko Irisgarritasuna Sustatzeko 20/1997 Legeak jasotzen duen bezala, Babes Ofizialeko Etxebizitzak sustapenetan mugikortasun murriztua duten pertsonentzako etxebizitza-erreserbak honako hauek izango dira:



- 44a) 1 etxebizitza 10 edo frakzio bakoitzeko.
- 44b) 1 etxebizitza 20 edo frakzio bakoitzeko.
- 44c) 1 etxebizitza 25 edo frakzio bakoitzeko.
- 44d) 1 etxebizitza 50 edo frakzio bakoitzeko.

45 Zer erantzun EZ DA ZUZENA? Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko azaroaren 5eko 38/1999 Legearen 3. artikulua arabera, hauek dira funtzionaltasunari dagozkion elementuak:

- 45a) Erabilera, halako moldez non espazioen antolaketak eta neurriek eta instalazioen zuzkidurak erraztu egingo duten eraikinean aurreikusitako funtzioak behar bezala egitea.
- 45b) Energia aurrezte eta isolamendu termikoa, halako moldez non lortuko den eraikina behar bezala erabiltzeko behar den energia zentzuz erabiltzea.
- 45c) Telekomunikazioaren, ikus-entzunezkoen eta informazioaren zerbitzuetarako sarbidea, araudi espezifikoan ezarritakoaren arabera.
- 45d) Irisgarritasuna, halako moldez non aukera emango zaien mugikortasun eta komunikazioa murriztua duten pertsonen eraikinean sartzeko eta bertatik ibiltzeko, araudi espezifikoan aurreikusitako baldintzetan.

46 Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko 38/1999 Legearen arabera (LOE), zenbateko berme-epea du eraikitzaileak, akaberako eraikuntza-elementuen akatsek edo hutsek kalte materialak eragiten badituzte?

- 46a) 1 urte.
- 46b) 3 urte.
- 46c) 5 urte.
- 46d) 10 urte.

47 Eraikuntza-obretako gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak ezartzen dituen urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuaren 5. artikulua jasotzen duenez, segurtasun- eta osasun-azterketak, gutxienez, eduki hauek izango ditu:

- 47a) Memoria eta aurrekontua.
- 47b) Memoria, planoak eta aurrekontua.
- 47c) Memoria, baldintza-agiria, planoak, neurketak eta aurrekontua.
- 47d) Memoria, baldintza-agiria, planoak, neurketak, aurrekontua eta kalitate-kontrola.

48 Urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuak eraikuntza-obretako segurtasuneko eta osasuneko gutxieneko xedapenak ezartzen ditu. 13. artikulua arabera, gorabehera-liburua:

- 48a) Beti egon behar da obra-lekuan eta kontratistak eduki behar du.
- 48b) Beti egon behar da obra-lekuan eta zuzendaritza fakultatiboak eduki behar du.
- 48c) Beti egon behar da obra-lekuan eta segurtasun eta osasunaren arloko koordinatzaileak eduki behar du edo, koordinatzaileak izendatu behar ez bada, zuzendaritza fakultatiboak.



48d) Ez da nahitaezkoa izango beti obran egotea, eta sustatzailearen esku egon behar du.

49 Eraikuntza- eta eraispén-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituen ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuaren 5. artikulua arabera, zenbat da, oro har, obra handien eraikuntza- eta eraispén-hondakinen kudeaketa-fidantza?

- 49a) Hondakinak kudeatzeko kapituluaren % 120.
- 49b) Obraren Egikaritze Materialaren Aurrekontuaren % 1.
- 49c) Obraren Egikaritze Materialaren Aurrekontuaren % 2.
- 49d) Eraikuntza- eta eraispén-hondakinei buruzko Udal Ordenantzak ezarritakoa.

50 Eraikuntza- eta eraispén-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituen ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuaren 9. artikulua arabera, obra txikietatik eratorritako eraikuntza- eta eraispén-hondakinak sortzen eta edukitzen dituzten pertsonak zer hiru hondakin-frakzio bereizi behar dituzte nahitaez jatorrian?

- 50a) Hondakin arriskutsuak eta ez-arriskutsuak.
- 50b) Tamaina handiko hondakinak, arriskutsuak eta ez-arriskutsuak.
- 50c) Harritzko hondakinak, arriskutsuak eta ez-arriskutsuak.
- 50d) Hondakin geldoak, arriskutsuak eta ez-arriskutsuak.

51 Ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzko 317/2002 Dekretuaren arabera, erabilera nagusitzat etxebizitzarena duten eraikuntza-unitateetan birgaitzeak jarduketa babestuzat hartuko dira, besteak beste, honako alderdi hauek egiaztatzen direnean:

- 51a) Birgaitu beharreko eraikinek 50 urte baino gehiago izatea, kasu guztietan.
- 51b) Birgaitu beharreko eraikinek 20 urte baino gehiago izatea, kasu guztietan.
- 51c) Birgaitu beharreko eraikinek 10 urte baino gehiago izatea, kasu guztietan.
- 51d) Birgaitu beharreko eraikinek 10 urte baino gehiago izatea, ondoko kasuetan izan ezik: etxebizitzak minusbaliatuek erabiltzeko egokitzean, eraikinean gas naturala instalatzen denean edota obrak instalazioak indarrean dagoen araudi tekniko berriari egokitzeko beharrezkoak direnean (obrak burutzeko administrazio-agindua izango da).

52 Euskal Kultura Ondarearen maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen 3. artikulua arabera, honako hauek dira eskudunak, lege honen ondorioetarako:

- 52a) Eusko Jaurlaritza.
- 52b) Foru-erakundeak.
- 52c) Udalak.
- 52d) Aurreko erantzun guztiak dira zuzenak.

53 Euskal Kultura Ondarearen maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen 9. artikulua arabera, zer kategoria ezartzen dira ondasun higiezinak?



- 53a) Monumentua, monumentu multzoa, eremu arkeologiko edo paleontologikoa, lorategi historikoa, kultura-ibilbidea eta kultura-espazioa.
- 53b) Monumentua, lorategi historikoa, kultura-ibilbidea eta kultura-espazioa.
- 53c) Monumentua, monumentu multzoa, arkeologia edo paleontologia-eremua eta kultura-espazioa.
- 53d) Monumentua, monumentu-multzoa, kultura-ibilbidea eta kultura-espazioa.

54 Eraikingintzaren Kode Teknikoa onartzen duen martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuaren 2. artikulua arabera, EKTaren aplikazio-esparrua honako hau izango da:

- 54a) EALek ezarritako baldintzetan eta zehazten dituen mugekin, proiektua aurrera ateratzeko legez dagokion lizentzia edo baimena behar duten eraikin publiko zein pribatuak.
- 54b) Eraikin berriak egiteko lanak, salbu teknikoki sinpleak diren eta eraikuntza-lan txikia duten eraikinak, baldin eta, behin-behinekoz nahiz iraunkorki, bizitegi gisa erabiltzen ez badira edota izaera publikoa ez badute, eta betiere solairu bakarrekoak badira eta pertsonen segurtasunari eragiten ez badiote.
- 54c) Lehendik dauden eraikinetan egiten diren esku-hartzeak, eta EKTa betetzea proiektuan edo teknikari eskudunak sinatutako memoria batean justifikatuko da, obretarako lizentzia edo baimen administratiboaren eskaerarekin batera.
- 54d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

55 Eraikingintzaren Kode Teknikoa onartzen duen martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuaren 14. artikuluari jarraituz, eraikin berrien esparruek ezaugarri akustiko jakin batzuk izango dituzte honako zarata hauen transmisioa murrizteko:

- 55a) Aireko zarata eta kanpoko inpaktuena, besterik ez.
- 55b) Eraikinen beraien erreberberazio-zarata, besterik ez.
- 55c) Kanpoko aireko zarata zein eraikineko instalazioek berek sortutako zarata, besteak beste.
- 55d) Errepide eta hegazkinen zarata.

56 Eraikingintzaren Kode Teknikoak (EKT) suteetarako Oinarrizko Segurtasun-Dokumentuan (OD-SS) dioenaren arabera, ebakuazio-garaiera:

- 56a) Eraikin bateko solairu desberdinen arteko desnibelen baturari dagokio, sotoak sartu gabe, sarbideko sestratik.
- 56b) Eraikinaren garaierari dagokio, sarbidearen beheko sestratik.
- 56c) Ebakuazio-jatorri baten eta jatorri horri dagokion eraikin-irteeraren arteko kota-aldeari dagokio.
- 56d) Eraikinaren goiko solairuaren eta beheko sestraren arteko kota-aldeari dagokio beti.



57 EKT- OD-ESI (Erabileraren Segurtasuna eta Irisgarritasuna) oinarritzko dokumentuan, zein da oinezkoentzako ibilbideetan ibilbide irisgarrietarako maldetan onartzen den gehienezko malda?

- 57a) % 6
- 57b) % 8
- 57c) % 10
- 57d) % 12

58 Eraikingintzaren Kode Teknikoa onartzen duen martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuaren 6.1.3 artikulua arabera, obraren ezaugarri orokorrak dokumentu honetan definituko dira:

- 58a) Proiektu teknikoan.
- 58b) Oinarritzko proiektuan.
- 58c) Proiektu ekonomikoan.
- 58d) Aurreko erantzunetatik bat bera ere ez da zuzena.

59 Eraikinen Ikuskapen Teknikoari buruzko uztailaren 24ko 117/2018 Dekretuaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan derrigorrezkoa da Eraikinen Ikuskapen Teknikoa egitea:

- 59a) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren laguntzak eskuratu nahi dituzten titularren eraikinetan.
- 59b) Gutxienez bi etxebizitza dituzten industria-eraikinek EITa aurkeztu beharko diote udalari, eraikinak berrogeita hamar urte bete eta hurrengo urtearen barruan.
- 59c) Nagusiki bizitegi-erabilera duten eraikinek EITa aurkeztu beharko dute udalean, eraikinaren azken ikuskapen teknikoa egin zenetik berrogeita hamar urte bete ondoren, familia bakarreko bizitegi-erabilera duten eraikinen kasuan izan ezik.
- 59d) Erabilera nagusia bizitegi-erabilera duten eta euskal kultura-ondarearen arloko araudiaren mende dauden eraikin guztiak salbuetsita egongo dira EITa egitetik.

60 Euskal Autonomia Erkidegoko etxebizitzaren eta zuzkidura-bizitokiaren gutxienezko bizigarritasun-baldintzak eta diseinu-arauak arautzen dituen ekainaren 28ko 80/2022 Dekretuaren 5. artikulua arabera, zenbat metro karratu erabilgarri izan behar ditu, gutxienez, 3 lagunentzako etxebizitza batek?

- 60a) 25 metro karratu.
- 60b) 35 metro karratu.
- 60c) 50 metro karratu.
- 60d) 60 metro karratu.

61 Plan Orokorreko Eraikuntzaren Ordenantza Orokorren arabera, eraikuntzaren gehieneko altueraren gainetik, orokorrean, eraikuntza hauek onartu ahal izango dira:

- 61a) Estalkiko isurkiak, gehienez ere 40 graduko makurtze edo inklinazioarekin.



- 61b) Eskailera-kaxaren, igogailuen etxolen, biltegien eta gainerako instalazioen erremateak, gehienez 4,5 m-ko altuera izango dutenak; fatxadatik gutxienez 2 m-ko atzeraemangunea izango dute.
- 61c) Estalkiko isurkiak, gehienez % 40ko makurtze edo inklinazioarekin. Baoak irekitzeko paramentu bertikalak lortzeko bakarrik eten daitezke.
- 61d) Eskubandak (karelak), barandak eta erremate apaingarriak, 2,00 m-ko gehieneko altuerarekin.

62 Uharte-patioetako (etxe saileko patioetako) hegalei dagokienez, plan orokorreko eraikuntzaren ordenantza orokorrekin honako hauek arautzen dituzte:

- 62a) Ez dira inolaz ere onartzen.
- 62b) Patioak 12 m-tik gorako zabalera duenean bakarrik onartzen dira.
- 62c) Balkoi eta balkoi jarraitu formako hegalek bakarrik onartzen dira.
- 62d) Hegal itxien kasuan, onartutako gehieneko hegala 80 cm-koa izango da.

63 Osasungarritasun- eta bizigarritasun-baldintzak arautzen dituen plan orokorreko hirigintza-arauen 2.4.03.02.02 artikuluan jasotako gutxienezko baldintzak:

- 63a) Hiri-lurzoruan dauden eraikin guztiei aplikatuko zaizkie.
- 63b) Plan Orokorraren garapenean egiten diren eraikuntza guztiei aplikatuko zaizkie.
- 63c) Babes ofizialeko araubideari atxikita dauden eraikinei eta Plan Orokorra onesten den egunean daudenei aplikatuko zaizkie.
- 63d) Ez dira aplikagarriak babes ofizialeko erregimenera atxikita dauden eraikinetan eta Plan Orokorra onesten den egunean existitzen direnetan.

64 Eibarko Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean A mailako babes berezi gisa sailkatuta dagoen eraikin batean, igogailua jar daiteke?

- 64a) Bai, irisgarritasun unibertsala bermatzeko, nahiz eta eraikuntzaren elementu tipologiko, formal eta egiturazkoei eragin.
- 64b) Ez, igogailua ez baitago oinarritzko instalazio teknologiko eta higieniko-sanitarioen barruan.
- 64c) Ez, instalazioak estalkiaren formari eragiten badio.
- 64d) Bai, oinarritzko instalazio teknologiko eta higieniko-sanitarioen parte baita, betiere, eraikinaren elementu tipologiko, formal eta egiturazkoak errespetatzen badira, eta Kultura Ondarearen Batzordearen aldeko irizpena, estalkiaren forman instalazio horrek izango duen eraginari buruzkoa, egin ondoren.

65 Honako hauei aplikatuko zaie Eibarko udalerrian ostalaritzako establezimenduen eta antzekoen kokapen-, instalazio- eta funtzionamendu-baldintzak arautzen dituen ordenantza.

- 65a) Bai instalazio berriei, bai lehendik dauden handitze-lanei, bai behin-behineko etaaldi baterako jardueren instalazioei.
- 65b) Bai instalazio berriei, bai lehendik daudenen handitze-lanei, behin-behineko etaaldi baterako jardueren instalazioei izan ezik.



- 65c) Instalazio berriei bakarrik.
65d) Behin-behineko eta aldi baterako jardueren instalazioei baino ez.
- 66 Irisgarritasun-baldintzak hobetzeari buruzko udal ordenantzaren helburua da irisgarritasun-baldintzak hobetzea xede duten eraberritze esku-hartzeen hirigintza- eta eraikuntza-baldintzak arautzea, kasu hauetan:**
- 66a) Eibarko udalerrian kokatutako eraikin guztietan.
66b) Eibarko udalerrian kokatutako eraikinak, HAPOak definitutako berariazko antolamendutik kanpoko kasuan dauden higiezinetan izan ezik.
66c) Etxebizitzak dituzten eraikinetan, baldin eta Hiri Antolamendurako Plan Orokorren Babes Araubide Bereziaren menpe dauden eraikinen katalogoan sartuta ez badaude.
66d) Erabilera nagusia bizitegi kolektiboa duten eraikinetan.
- 67 Lehendik dauden eraikinen irisgarritasun-baldintzak hobetzeari buruzko udal-ordenantzan, proiektu teknikoek edo, hala badagokio, aurretiazko azterketek arrazoituta justifikatu beharko dute zein leku aukeratu den igogailua jartzeko, balizko kokapen-hurrenkera honi jarraituz:**
- 67a) Ez zaio kokapen bati beste bati baino lehentasun handiagorik ematen, betiere modu arrazoituan justifikatzen bada igogailua jartzeko aukeratu den lekua.
67b) Eraikinaren kanpoaldean, espazio pribatuaren gainean; eraikinaren barruan, eskailera-kaxan; eraikinaren barruan, barruko patioan; eraikinaren barruan, egoera berezietan; eraikinaren kanpoaldean, jabari publikoaren gainean.
67c) Eraikinaren kanpoaldean, espazio pribatuaren gainean; eraikinaren kanpoaldean, jabari publikoaren gainean; eraikinaren barruan, eskailera-kaxan; eraikinaren barruan, barruko patioan; eraikinaren barruan, egoera berezietan; eraikinaren kanpoaldean, jabari publikoaren gainean.
67d) Eraikinaren barruan, eskailera-kaxan; eraikinaren barruan, barruko patioan; eraikinaren barruan, egoera berezietan; eraikinaren kanpoaldean, espazio pribatuaren gainean; eraikinaren kanpoaldean, jabari publikoaren gainean.
- 68 2/2006 Legearen arabera, zein da hiri-hobekuntzako eta -berrikuntzako jarduketak eta hiri-lurzoruan zuzkidura publikoak sortzea ahalbidetzen duen hirigintza-tresna?**
- 68a) Plan berezia.
68b) Plan Partziala.
68c) Sektorizazio-plana.
68d) Hiri-antolamendurako plan orokorra.
- 69 Zein da Hiri Antolamendurako Plan Orokor baten funtsezko edukia, 2/2006 Legearen arabera?**
- 69a) Hiri-antolamendurako Plan Orokorra udalerri osoaren egiturazko antolamendua eta antolamendu xehatua jasoko ditu, gutxienez.



- 69b) Hiri-antolamendurako Plan Orokorrak, gutxienez, udalerri osoaren egiturazko antolamendua eta hiri-lurzoru finkatuaren antolamendu xehatua jasoko ditu.
- 69c) Hiri Antolamendurako Plan Orokorrak udalerri osoaren egiturazko antolamendua eta hiri-lurzoru finkatuaren eta finkatu gabearen antolamendu xehatua jasoko ditu, gutxienez.
- 69d) Hiri Antolamendurako Plan Orokorrak udalerri osoaren egiturazko antolamendua eta hiri-lurzoruaren eta lurzoru urbanizagarriaren antolamendu xehatua jasoko ditu, gutxienez.

70 Urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera (Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina), Eraiki gabeko Lurzoru Urbanizatuaren balorazioa:

- 70a) Urteko errenta edo errenta potentziala kapitalizatuz egingo da.
- 70b) Berrezartze-metodoaren bidez egingo da.
- 70c) Konparazio-metodoaren bidez egingo da.
- 70d) Lurzoruaren eragin-balioaren metodoaren bidez egingo da.

ERRESERBAKO GALDERAK

71 2/2006 Legearen arabera, higiezin baten jabe izan behar da hirigintza-lizentzia emateko?

- 71a) Ez, inola ere ez.
- 71b) Bai, beti.
- 71c) Bai, ondasun publikoak badira.
- 71d) Bai, zuzkidura-ondasun publikoak badira.

72 Hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasunari buruzko Eusko Jaurlaritzaren 68/2000 Dekretuaren xedapen iragankorretan ezarritakoaren arabera, dekretu horretan xedatutakoa(k):

- 72a) Atzeraeragina izango du.
- 72b) Eskatutako baimen, emakida eta lizentzia oro ematean aplikatuko da.
- 72c) Indarrean sartu ondoren eskatutako diren baimen, emakida eta lizentzia oro ematean aplikagarria izango da.
- 72d) Indarrean sartu ondoren hasierako onespena duten hirigintza-plangintzako tresnetan eta urbanizazio-proiektuetan baino ez da aplikagarria izango.



73 Zein dira oinezkoen ibilbide baten luzetarako eta zeharkako gehieneko maldak?

- 73a) Luzetarakoa = % 8 eta zeharkakoa = % 1
- 73b) Luzetarakoa = % 6 eta zeharkakoa = % 2
- 73c) Luzetarakoa = % 8 eta salbuespenez = % 10 eta zeharkakoa = % 2
- 73d) Luzetarakoa = % 6 eta zeharkakoa = % 1

74 Euskal Kultura Ondarearen maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen 8. artikulua arabera, zer babes-maila ezartzen dira?

- 74a) Babes berezia, oinarritzakoa eta udal-babesa duten kultura-ondasunak.
- 74b) Babes berezia, ertaina eta oinarritzakoa duten kultura-ondasunak.
- 74c) Babes berezia eta ertaina duten kultura-ondasunak.
- 74d) Babes handiko, ertaineko eta oinarritzakoa duten kultura-ondasunak.

75 Urbanizazioa eraberritzeko edo berritzeko jarduketetan, sistema orokorrak lurzoru urbanizatuaren sartu eta atxiki daitezke?

- 75a) Ez, inola ere ez.
- 75b) Ez, sartutakoak bakarrik.
- 75c) Ez, atxikitakoak bakarrik.
- 75d) Bai, beti

76 Euskal Autonomia Erkidegoko etxebizitzaren eta zuzkidura-bizitokiaren gutxiengo bizigarritasun-baldintzak eta diseinu-arauak arautzen dituen ekainaren 28ko 80/2022 Dekretuaren arabera, gutxiengo bizigarritasun-baldintzen zer printzipio dagokio etxebizitzaren egoiliarren behar aldakorretara egokitzeari?

- 76a) Jasangarritasun sozialaren printzipioa.
- 76b) Moldakortasunaren printzipioa.
- 76c) Tratu- eta aukera-berdintasunaren printzipioa.
- 76d) Ingurumen-jasangarritasunaren printzipioa.

77 Noiz eskatu behar da jasangarritasun ekonomikoaren txostena?

- 77a) Hirigintza-eraldaketako jarduketak jasotzen dituzten antolamendu-tresna guztietan eta haien aldaketetan.
- 77b) Urbanizazio-jarduketak jasotzen dituzten antolamendu-tresnetan eta haien aldaketetan baino ez.
- 77c) Zuzkidura-jarduketak jasotzen dituzten antolamendu-tresnetan eta haien aldaketetan baino ez.
- 77d) Ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoa behar duten antolamendu-tresnetan eta haien aldaketetan baino ez.



78 Sekторе Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen arabera, eraikitako ondasunetan akats edo hutsik ez dagoelako erantzukizuna duen obra-kontratu batean, honako hau izango da behin betiko berme-epea:

- 78a) Ezin da inoiz izan bi urte baino gutxiagokoa, kasu berezietan izan ezik.
- 78b) Obra-bukaerako ziurtagiria onetsi eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da zenbatzen.
- 78c) Administrazio-klausula zehatzen agirian ezartzen da, obraren izaera eta konplexutasuna kontuan hartuta, eta, gutxienez, urtebetekoa izango da, kasu berezietan izan ezik.
- 78d) Hiru urtetik gorakoa izango da, betiere obrak azpiegituraren edo eraikinaren elementu nagusiei eragiten badie..

79 Zein dira lurzorua balioesteko metodo gaituak?

- 79a) Landa-lurzorua: Kapitalizazioa eta konparazioa / Lurzoru urbanizatua: hondar-metodoa eta kostua.
- 79b) Landa-lurzorua: Kapitalizazioa eta konparazioa / Lurzoru urbanizatua: hondar-metodoa eta konparazioa.
- 79c) Landa-lurzorua: Kapitalizazioa eta hondar-metodoa / Lurzoru urbanizatua: kostua eta konparazioa.
- 79d) Landa-lurzorua: Hondar-metodoa eta konparazioa / Lurzoru urbanizatua: kapitalizazioa eta kostua.

80 Esparru edo sektore baten antolamendu xehatuak hauei buruzko zehaztapenak aurreikusiko ditu:

- 80a) Lurzoruen sailkapena.
- 80b) Lerrokadurak eta sestrak finkatzea.
- 80c) Sistema orokorrak zehaztea.
- 80d) Kalifikazio orokorra.